

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 19:00 horas del día 14 de noviembre de 2022, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sr/as. Concejales/as D^a. Ana Azanza Burusco, D^a Miren Oyarbide Lapazaran, D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu y D. Mikel Gaztelu Alonso, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIÓN DE 18 DE JULIO Y 15 DE SEPTIEMBRE DE 2022.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar las actas de sesión de 18 de julio y 15 de septiembre de 2022.

2- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 15 DE JULIO HASTA EL 10 DE NOVIEMBRE DE 2022.

Informa el alcalde Sr. Irigaray del contenido de las Resoluciones de Alcaldía desde el 15 de julio hasta el 10 de noviembre de 2022, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

3.- APROBACIÓN DEFINITIVA EXPEDIENTE DE CUENTAS DE 2021.

Toma la palabra el alcalde, Sr. Irigaray, que informa que en el periodo de exposición del expediente de cuentas del ejercicio 2021 no ha habido alegaciones al mismo por lo que procede su aprobación definitiva.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar definitivamente el expediente de cuentas del ejercicio 2021.

4. CONVENIO CON GARRALDA PARA EL CIERRE DE ERREKAGAITZ.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que el Ayuntamiento de Auritz/Burguete presenta en la campaña 2022-2023 de Ayudas a Trabajos Forestales, entre otros trabajos el cierre de mugas en Errekagaitz. El cierre nuevo va desde la Borda de Urtxuti hasta Mugarrieder o Irumugeta y

corresponde cerrar según los acuerdos tradicionales entre ambas instituciones al Ayuntamiento de Garralda es por ello que se propone aprobar el acuerdo que figura en el expediente en el que Garralda se comprometen a financiar al 100 % el coste no subvencionado de los trabajos de nuevo cierre forestal realizado en ese paraje en la campaña de actuaciones forestales 2022/2023 promovido por Auritz/Burguete

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar el convenio a firmar entre los alcaldes de las dos entidades.

5.- APROBACION DE PLIEGO PARA ADJUDICACIÓN DEL BAR DEL FRONTÓN.

Toma la palabra el alcalde, que informa que, tras las reuniones mantenidas al respecto por la Corporación, la Sra. Secretaria las ha plasmado en el pliego que obra en el expediente para adjudicar el establecimiento.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu manifestando que en su opinión obligar a tener el establecimiento de nueve de la mañana a once de la noche le parece excesivo ya que hay momentos que no hay clientes y que en invierno sobre todo no van a tener ingresos.

Le responde la concejala Sra. Oyarbide que el bar del Frontón cumple una labor social y que a su parecer la apertura debe estar garantizada que por ello el alquiler económico del establecimiento es muy bajo y no se rige por el mercado. De la misma opinión son la concejala Sra. Azanza, que no ve de recibo abrir el bar al mediodía ya que hay mucha gente que hay días por la mañana que no puede tomar ni siquiera un café y el concejal Sr. Juandeaburre, que añade además que en el pliego debe quedar más claro cuando nieva, la obligación de abrir los accesos al bar y a los servicios.

El concejal Sr. Gaztelu pregunta porque hacer un contrato de dos años prorrogable uno a uno hasta cinco y no más largo. Le responde la Sra. Secretaria que es un tema legal que impide que el contrato supere ese periodo.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar el pliego añadiendo y matizando las observaciones realizadas, procediendo a su publicación en el Portal de Contratación de Navarra.

6.- ACUERDO RELATIVO A LA RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA DE LA GUERRA DE 1936-39.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que tras la aparición en Ferrol de documentación del asesinato de una mujer sin identificar acusada de espía acaecido en este municipio en 1936, se puso en contacto con el Departamento de Paz y Convivencia y mantuvieron una reunión el pasado 8 de septiembre y en día posterior se hizo una visita a los lugares, descartando el hacer excavaciones en el cementerio civil del cementerio viejo porque cuando se derribó se removió mucho esa parte del suelo y es probable que los resultados sean infructuosos. En aquellas reuniones se comentó la posibilidad de poner un recuerdo a los trágicos acontecimientos de aquella guerra en el antiguo cementerio civil donde quedaría colocada la nueva placa. Dado que la convocatoria de ayudas para este año ya está cerrada sería para el próximo por lo que mientras se puede trabajar para resolver qué hacer en el lugar.

Por otro lado, del listado de asesinados relacionados con esta villa y que figuran en la actual placa hay que quitar, además de a los aprobados en la sesión del 18 de julio, también a Antonio Millán Escandón por no tener ningún vínculo con este municipio

Se acuerda por unanimidad estudiar que se puede hacer en el lugar, para adecuarlo como recordatorio de aquellos sucesos, y eliminar el nombre de Antonio Millán Escandón (Gijón-Mezkiritz) de la futura placa por no tener relación con Auritz/Burguete al igual que José Antonio Arlegui Arraiza y Sergio Ilarraz Villanueva, ambos de Aoiz.

7.- ADQUISICIÓN DE OBRA PICTÓRICA DE CÉSAR MUÑOZ SOLA.

Seguidamente, el alcalde Sr. Irigaray, informa que recientemente se ha visto la posibilidad de comprar un óleo-cartón de dimensiones son 30 X 36 pintado por Muñoz Sola en 1952 por 550 €, donde se representa una panorámica de la villa desde Maiorlategia, en concreto desde el Pozo de las Chicas. Que pidió consejo para ello, a José María Muruzabal Del Solar, siendo favorable su respuesta, el cual por cierto le comunicó que

recientemente en una colección particular ha catalogado dos obras del pintor oriundo de Burguete, Martín Izangorena.

La Corporación acuerda por unanimidad adquirir por el precio de 550,00 euros, la obra de Muñoz Sola que se colgará en dependencias municipales.

8.- ADJUDICACIÓN OBRAS GENERADAS A CONSECUENCIA DE LA BORRASCA BARRA.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que se ha recibido una subvención del 50% del importe por parte del Estado para ejecutar las obras consistentes en la limpieza de Aetzubi, reparación de los puentes de Zaldua y Soroluzea y del camino de Bidausi según memoria valorada realizada por Ekilan. Propone, dada la cuantía de las obras, y la premura del tiempo pues hay que adjudicarlas antes del 21 de este mes, pedir tres presupuestos y adjudicar la obra, por resolución de alcaldía a quien presente la oferta más ventajosa.

Se acuerda por unanimidad pedir tres presupuestos y adjudicar la obra a la oferta más ventajosa por resolución de alcaldía.

9.- ACUERDO RELATIVO A LA VENTA DE TERRENO SOLICITADO POR D^a. MARÍA ESTHER DUFUR OHARRIZ.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa de la instancia presentada por D^a María Esther Dufur Oharriz solicitando la venta de unos metros cuadrados, sin especificar la cuantía, en la trasera de su casa ya que según los documentos que aporta su finca muga por ese lado con común. Que tal como se acordó en sesión de cuatro de octubre del año pasado los metros en cuestión, catastralmente figuran a nombre de Herederos de D^a. Anastasia Reca Garate, no del Ayuntamiento, por lo que en la actualidad el Ayuntamiento nada podría hacer puesto que no puede disponer de un bien que según catastro no es suyo. Que en la misma sesión se acordó investigar cómo había afectado la concentración parcelaria a esa finca, habiendo recibido informe emitido por el Servicio de Infraestructuras Agrarias que dice que la finca quedó excluida del proceso de concentración por lo que la situación está igual desde la implantación del nuevo catastro en 1993. Que, dada la situación se ve que hay discrepancia sobre la propiedad de esos metros, entre los Herederos de D^a. Anastasia Reca Garate y el Ayuntamiento,

se deberá corregir si es erróneo el catastro que se hará cuando el Ayuntamiento lo estime oportuno ya que en la actualidad se trabaja en la subsanación de otros casos que a su criterio tienen más prioridad que éste. Por último, añade que cuando se regularice esa situación, si los metros solicitados pasasen a nombre del Ayuntamiento, dado el carácter rústico del suelo, estos pasarían a formar parte del comunal del vecindario de Auritz/Burguete el cual es imposible enajenar sin autorización del Gobierno de Navarra en un proceso de desafectación que solo está motivado por un interés general de la población.

Por todo ello la Corporación acuerda por unanimidad comunicar a la solicitante:

-La imposibilidad de vender ese terreno y que en la actualidad no figura catastralmente a nombre del Ayuntamiento.

-En el momento que se resuelva la discrepancia de la titularidad del terreno, si el Ayuntamiento fuese el titular, dada la naturaleza de suelo rústico sería considerado como comunal y según la legislación vigente para su preservación impide la enajenación de los metros por no ser de interés general por lo que tampoco sería posible la venta.

10.- CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL IES AGROFORESTAL PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS.

Informa el Sr. Alcalde, por un lado, que la plaza de Alguacil tal como la conocemos dada la situación económica del Ayuntamiento a medio plazo tras la jubilación del actual alguacil, probablemente desaparezca, amortizándose la plaza y se reestructure de otra forma y por otro, que hay demanda en la zona de alumnos de agroforestal para realizar prácticas. A su parecer hay que probar con otras alternativas y fórmulas que complementen los trabajos de alguacil, es por ello, que propone firmar un convenio con ese instituto para que puedan venir estudiantes en prácticas de formación

Toma la palabra la concejala Sra. Azanza que pregunta que coste tendría para el Ayuntamiento, que tipos de trabajos se realizarían y en que épocas y por último si esos trabajos los realizarán solos.

Responde el Alcalde Sr. Irigaray que el coste es nulo para las arcas municipales que los trabajos serían enfocados a temas forestales, así, este

año está pensado mantener las rutas de los búnkeres, podas, repaso de cierres, marcaje de monte, mantenimiento de caminos, etc. Realizándose los trabajos de marzo a junio aproximadamente y que unos trabajos los harán con el Alguacil, otros con el Guarderío forestal y otros solos.

La Corporación acuerda por unanimidad aprobar la firma del citado convenio entre el IES Agroforestal y el Ayuntamiento.

11.- ACUERDO DE ALQUILER DE PARCELA DE IPETEA SOLICITADA POR D. EDUARDO ARROSAGARAY AUZQUI.

Toma la palabra el alcalde, Sr. Irigaray que informa de la solicitud presentada por el Sr. Arrosagaray para alquiler por tres años con posibilidad de compra, una parcela en el polígono Ipetea con el fin de dejar madera, pues quiere probar compaginando con su actual trabajo la viabilidad de dedicarse a la preparación de leña y la instalación de un núcleo zoológico. Las dos actividades no necesitan en un principio infraestructuras fijas sino instalaciones desmontables.

Tras un debate entre los miembros de la Corporación se decide por unanimidad:

- Dejar el tema pendiente sobre la mesa y solicitar al Sr. Arrosagaray que aclare de que se trata el tema de núcleo zoológico, hablar con la arquitecta municipal y recogida la información volverlo a tratar en próxima sesión.

12.- ACUERDO RELATIVO AL ARRIENDO DE COMUNALES CON D. CARLOS LEACHE ARRESE.

Toma la palabra el alcalde, que informa que el Sr Leache, les ha transmitido al concejal Sr. Juandeaburre y a él, su disconformidad con el recibo que le han girado por disfrute de comunales ya que argumenta que el convenio de Berroaundia que afecta a 1,9 hectáreas está vigente y por tanto mientras siga vigente no se le debe cobrar por ese concepto.

Consultado el archivo se ve que tiene razón por lo que se acuerda emitir un nuevo recibo descontando las 1,9 hectáreas de Berroaundia que tiene asignadas.

Informa que también les ha mostrado su desacuerdo con que tenga que pagar las 3,5 hectáreas que tras el acuerdo de la “rueda” le corresponden y que este

año le ha tocado ceder a D. Iñaki Cilveti. Añade que el Sr. Cilveti en relación a la mencionada cesión, ha presentado un escrito pero que por la brevedad de tiempo que ha transcurrido entre la presentación y la sesión, se debatirá en la próxima.

Debatido el asunto por la corporación, se acuerda por unanimidad girar a D. Carlos Leache un recibo por las 3,5 hectáreas trabajadas ya que, si bien fueron adjudicadas a D. Iñaki Cilveti, quien las ha disfrutado por asignación de la “rueda”, ha sido el Sr. Leache.

13.- ACUERDO SOLICITUD HEMANOS DUFUR DE YNCHAUSTI.

Toma la palabra el Sr. Alcalde e informa que Aritza e Imanol Dufur de Ynchausti han presentado un escrito donde respecto a las 16,6 hectáreas de Berroandía que tienen adjudicadas, dicen que están sujetas al convenio de 7 de octubre de 2014, el cual no ha finalizado todavía y piden se reconsidere la actuación a futuro y dada la particularidad de los referidos pastos se trabaje en un nuevo convenio ya que los pastos referidos no están todavía consolidados. Argumentan como ejemplo que en el SIGPAC tienen un coeficiente de admisibilidad menor, en concreto del 85%.

El alcalde Sr. Irigaray propone cumplir el convenio y estudiar con técnicos en la materia el grado de consolidación de los pastos y la aprobación de un nuevo convenio si se considerara necesario.

La Corporación acuerda por unanimidad la propuesta del Sr. Alcalde.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que pregunta sobre la aplicación del IPC anual de la hectárea y pide su no aplicación.

Responde el Sr. Alcalde que está de acuerdo con la argumentación del Sr. Gaztelu pero plantea debatir el asunto en la siguiente sesión, acordándolo así por unanimidad de los Srs/as. ediles.

14.- APROBACION MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA.

Toma la palabra el alcalde, que informa que en agosto los padres de alumnos de varias localidades del Valle de Erro, Villanueva de Arce, Burguete y Garralda que tienen que trasladarse a Pamplona a cursar sus estudios ante la falta de solución por parte del Departamento de Educación al problema del transporte, se pusieron en contacto con las entidades locales en aras a

intermediar para la búsqueda de una solución siendo al final la contratación por temas de legalidad gestionada por los ayuntamientos del Valle de Erro que adelantan el dinero y Auritz/Burguete que ayuda a la contratación y sufragando los gastos los alumnos y el Departamento de Proyectos Estratégicos.

Toma la palabra el concejal Sr. Juandeaburre que manifiesta que en su opinión le parece caro. Le responde la Sr. Secretaria que son precios de mercado, opinión que corrobora el Sr. Alcalde que comunica que en ningún momento los grupos parlamentarios mostraron extrañeza por el precio.

Añade la Sr. Secretaria que se trata de una medida transitoria y que se está a la espera de un convenio con el Departamento de Proyectos Estratégicos.

Tras el debate la Corporación acuerda por unanimidad la aprobación inicial de la modificación presupuestaria.

Fuera del orden del día se acuerda por unanimidad tratar el siguiente asunto:

1º.- Día Internacional contra la violencia contra las mujeres 25 de Noviembre.

Como en años anteriores, con motivo de la conmemoración del 25 de noviembre, Día Mundial contra la Violencia hacia las Mujeres de la ONU, varias Entidades Locales de Navarra de manera colectiva, han realizado una declaración conjunta que ponen a disposición del resto de municipios de Navarra que quieran participar y adherirse a esta campaña de “AYUNTAMIENTOS CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”.

La corporación estando de acuerdo aprueba por unanimidad:

Adherirse a la campaña de “AYUNTAMIENTOS CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”.

15.- INFORMACIÓN VARIA

Actos vandálicos.

El alcalde Sr. Irigaray informa que se recibió una comunicación de Gestión Ambiental Navarra, empresa que lleva el mantenimiento de los servicios del

área de descanso de La Cadena informado de actos de cierta consideración como la rotura de las tazas y la introducción de piedras y palos por los desagües llegando a constituir delito dado la cuantía de su reparación. Por otro lado, han aparecido recientemente tiradas en el monte las señales colocadas para el acceso controlado de vehículos al monte de Urdandegieta y Otsamieta queriendo mostrar su indignación por los hechos que dificultan el control de vehículos al monte, dan mala imagen de la localidad y crean gastos innecesarios.

El concejal Sr. Juandeaburre propone pasar una comunicación por las casas. La Corporación se da por enterada y acuerda la propuesta del Sr. Juandeaburre.

Agua del canal.

El alcalde Sr. Irigaray informa que el 16 de agosto decidió dada la sequía que se padecía y en aras a que la regata Arrañosinerreka mantuviese todo el caudal posible, el corte del agua de los canales de la calle San Nicolás. Que teniendo en cuenta que parte de los vecinos utilizan ese caudal para el riego de las huertas y que con el cambio climático los estiajes y sequías van a ser más frecuentes y prolongados habrá que proponer una fórmula que ninguno de los usuarios se sienta discriminado cuando se reduzca el caudal. La Corporación se da por enterada.

Modificaciones catastrales de Aretxekosaro y Saroberri.

El alcalde Sr. Irigaray informa que ya ha finalizado el proceso de la corrección catastral de la parcela 160, polígono 5 en Aretxekosaro queriendo dejar constancia de la buena voluntad tanto del actual propietario, Rafael Martín, como la de María Nieves Urdiroz Villanueva ya fallecida, que han facilitado en todo momento el trámite. Por otro lado informa que a instancia del departamento de Obras Públicas se ha modificado el catastro y la nota registral de la carretera, excluyendo el camino de Saroberri. La Corporación se da por enterada.

Ferías de Agosto y Septiembre.

El alcalde Sr. Irigaray informa que en esta edición la feria de Agosto, cambió su ubicación a la parte de atrás cogiendo la calle Roncesvalles ya que Policía Foral así lo aconsejó debido a las posibles modificaciones del tráfico por los

incendios de las Landas en Francia y por el paso de una competición ciclista. Añade que los feriantes han mostrado su agrado con los cambios de ubicación. Respecto a la Feria de Septiembre, destaca la buena acogida de la publicación sobre las estancias del escritor Ernest Hemingway. La Corporación se da por enterada.

Catalogación de las campanas de la iglesia.

El alcalde Sr. Irigaray informa que D. Miguel Bañales Leoz está realizando un catálogo de todas las campanas de Navarra habiendo clasificado las 6 de la parroquia de San Nicolás de esta villa y quiere dejar muestra del agradecimiento por la labor que está llevando a cabo que pondrá en valor estos elementos y evitará robos ya que quedan plenamente identificadas. La Corporación se da por enterada.

Mejora del ornato de la villa.

El alcalde Sr. Irigaray informa que el Alguacil Jesús Pedroarena Etulain y el peón Mikel Etxenike Ernetá han llevado a cabo trabajos de mejora de las mesas y bancos de la zona de la fuente de la plaza y del entorno de la cruz Blanca o de Roldán en Sorginaritzaga queriendo dejar constancia del gesto de buena voluntad de Miguel Tellechea Lus que ha donado toda la madera necesaria para la mejora del entorno de la fuente y agradeciéndole el detalle y al que se le enviará una carta de agradecimiento a propuesta del concejal Sr. Juandeaburre.

La Corporación se da por enterada.

Venta de monte.

El alcalde Sr. Irigaray informa que el lote maderero de este año marcado en Bidausi ha sido adjudicado a maderas Barbiur por un importe de 36.680 € más IVA.

La Corporación se da por enterada.

Concesión de subvención para mejora de la eficiencia energética.

El alcalde Sr. Irigaray informa de la concesión de 87.110,73 € por parte del IDAE que constituye la totalidad del presupuesto para el cambio del alumbrado. Al respecto dice que próximamente se mantendrá una reunión

con el ingeniero David Gordejuela en aras a calendarizar la acción y estudiar el alcance de las ayudas a las zonas actuadas el pasado año y el actual.

La Corporación se da por enterada.

Presentación de proyecto de parque multigeneracional a convocatoria de subvención.

El alcalde Sr. Irigaray informa de la presentación del proyecto a convocatoria subvención promovida por la Fundación Cajanavarra y La Caixa.

La Corporación se da por enterada.

Presentación proceso participativo de la juventud.

El alcalde Sr. Irigaray informa de que el pasado 19 de octubre tuvo lugar la presentación a la población de los resultados del trabajo realizado y de sus inquietudes. Por otra parte, añade que el proyecto se ha presentado a la XXV Edición Galardones de Juventud de Navarra.

La Corporación se da por enterada.

Solicitud de información por parte del Defensor del Pueblo de Navarra.

El alcalde Sr. Irigaray informa que ha llegado comunicación oficial del Defensor del Pueblo sobre queja de Joseba Otano Villanueva respecto a los perfiles lingüísticos de la plantilla orgánica de 2022 de Auritz/Burguete.

La Corporación se da por enterada.

Reunión con el Consejero de Industria y la Directora General de Turismo.

El alcalde Sr. Irigaray informa que el pasado 5 de noviembre tuvo lugar una reunión de cargos electos del Pirineo con D. Mikel Irujo Amezaga y D^a Maitena Ezkutari Artieda donde se trató la calendarización y diversas ideas al respecto de la UGET-Pirineo Navarro y se recibió información sobre los fondos Next-Generation para los distintos caminos de Santiago donde el representante del Valle de Erro y él defendieron el proyecto preparado por Erro, Burguete, Roncesvalles y Valcarlos que concretamente en Burguete pretende actuar en las traseras de las casas de Loigorri, Loperena y Aguio.

La Corporación se da por enterada.

Mesa del Pirineo.

El alcalde Sr. Irigaray informa que desde la Mesa del Pirineo se han presentado enmiendas que abarcan la totalidad del territorio de a los presupuestos generales de Navarra al objeto de frenar la despoblación La Corporación se da por enterada.

Enmiendas a los presupuestos de Navarra.

El alcalde Sr. Irigaray informa que en se presentó desde el Ayuntamiento a todos los grupos políticos del parlamento propuestas de enmiendas a los presupuestos consistentes en la financiación del tejado de la casa de los Maestros y del proyecto escolar de conocimiento del patrimonio natural. La Corporación se da por enterada.

Ordenanza fiscal.

El alcalde Sr. Irigaray informa que se recibió traslado de la Guardia Civil de denuncias de tráfico en el casco urbano y que en aras a poder cobrar las infracciones y otras que se den en el término municipal en la próxima sesión se tramitará la aprobación de una ordenanza de fiscalidad que las contemple. La Corporación se da por enterada.

16.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:30 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2022ko azaroaren 14ko 19:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Ana Azanza Burusco, Miren Oyarbide Lapazaran, Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu eta Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak; alkatea, Jose Irigaray Gil, bilkuraburu izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2022ko UZTAILAREN 18ko ETA IRAILAREN 15eko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2022ko uztailaren 18ko eta irailaren 15eko bilkuren aktak onestea.

2.- 2022ko UZTAILAREN 15etik 2022ko AZAROAREN 10a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Irigaray alkateak 2022ko uztailaren 15etik azaroaren 10era eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- BEHIN BETIKO ONESTEA 2021. URTEKO EKITALDIAREN KONTUEN ESPEDIENTEA.

Irigaray alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du 2021eko kontuen espedientea jendaurrean egon den bitartean ez dela alegaziorik egon, hortaz, behin betiko onetsi behar da.

Aho batez erabaki da 2021eko urtealdiko kontuak behin betiko onestea.

4. HITZARMENA GARRALDAKO UDALAREKIN ERREKAGAITZ HERSTEKO.

Irigaray alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du Aurizko Udalak 2022-2023 Baso Jardueretarako kanpainan, besteak beste, Errekagaitzeko mugak hersteko lanak aurkeztu dituela. Itxiera berria Urtxutiko bordatik Mugarrieder edo Irumugetaraino doa eta, bi erakundeen arteko akordio tradizionalen arabera, Garraldako Udalarari dagokio ixtea. Hori dela eta, espedientean agertzen den akordioa onartzea proposatzen da. Erabaki horretan, Garraldako Udalak konpromisoa hartzen du baso-itxitura berriko lanen diruz lagundu gabeko kostua % 100ean finantzatzeko, inguru horretan Auritzeko Udalak sustatutako 2022/2023 baso-jarduketan kanpainan egin zena.

Udalbatzak erabaki du aho batez bi entitateetako alkateek sinatu beharreko hitzarmena onartzea.

5.- FRONTOIKO TABERNA ADJUDIKATZEKO BALDINTZEN PLEGUA ONARTZEA

Alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du, gaiari buruz udalbatzak izan dituen bileretan adostutakoa idazkariak establezimendua adjudikatzeko pleguan jaso duela eta hori bilkurako espedientean dagoela.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du establezimendua goizeko bederatzietatik gaueko hamaiketara irekita izateko derrigortzea gehiegi iruditzen zaiola, zenbait unetan ez baitago bezerorik eta neguan gehienbat ez dutelako diru-sarrerarik izanen.

Oyarbide zinegotziak erantzun dio frontoiko tabernak zeregin soziala duela eta, bere ustez, bermatu behar dela irekita dagoela, horregatik hain zuzen ere alokairua oso bajua da eta merkatuko prezioetatik kanpo dago. Iritzi bera du Azanza zinegotziak, ez baitaio egokia iruditzen taberna eguerdian irekitzea, jende askok goizetan ezin baitu ezta kafe bat hartu, eta Juandeaburre zinegotziak gaineratu du pleguan argi geratu behar dela elurra egiten duenean derrigorrezkoa dela taberna eta komunetako sarbideak garbi edukitzea.

Gaztelu zinegotziak galdetu du zergatik kontratua bi urterako izanen den eta urtez urte luzatu ahalko den bost urte arte eta ez gehiago. Idazkariak dio legeak horrela agintzen duela eta ezin dela epe hori baino luzeago izan.

Udalbatzak erabaki du aho batez plegua onartzea eta gaineratzea eta zehaztea egindako oharpenak eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

6.- 1936-39 GERRAKO MEMORIA BERRESKURATZEARI BURUZKO AKORDIOA

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du, Ferrolen identifikatu gabeko emakume baten hilketaren dokumentazioa agertu ondoren, 1936an udalerrri honetan espioia izatea egotzita, Bake eta Bizikidetzaren Departamentuarekin harremanetan jarri zela eta bilera bat izan zutela irailaren 8an, eta, ondoren, bisita bat egin zela lekuetara, eta baztertu egin zela hilerri zaharreko hilerri zibilean indusketak egitea, eraitsi zenean asko mugitu zelako lurzorua zati hori, eta litekeena delako emaitzak alferrikakoak izatea. Bilera haietan, hilerri zibileko gerra hartako gertaera tragikoak gogoratzeko aukera aipatu zen, plaka berria jarrita geratuko baitzen. Aurtengo diru-laguntza deialdia itxita dagoenez, datorren urterako utziko da eta bitartean toki horretan zer egin erabakiko da.

Bestalde, herriarekin lotutako eraildakoen zerrendatik (egungo plakan agertzen dira), uztailaren 18ko bilkuran onartutakoez gain, Antonio Millan Escandon ere kendu behar da, udalerrri honekin inolako loturarik ez duelako.

Aho batez erabaki da tokian zer egin daitekeen aztertzea, gertaera haien oroigarri gisa egokitzeke, eta Antonio Millan Eskandonen (Gijon-Mezkiritz) izena etorkizuneko plakatik kentzeko, Auritzekin harremanik izan ez zuelako, baita Agoizko Jose Antonio Arlegui Arraiza eta Sergio Ilarraz Villanueva ere.

7.- CESAR MUÑOZ SOLAREN MARGO LANA EROSTEA.

Jarraian, Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Muñoz Solak 1952an margotutako 30 X 36 neurriko olio-kartoi bat 550 euroren truke erosteko aukera dagoela. Bertan, herriko panoramika bat irudikatzen da Maiorlategiatik, zehazki Nesken Putzutik. Horretarako aholkua eskatu zion Jose Maria Muruzabal Del Solar jaunari, eta haren erantzuna aldekoa izan zela; izan ere, hark jakinarazi zion duela gutxi, bilduma partikular batean, Aurizko Martin Izangorena margolariaren bi lan katalogatu dituela.

Udalbatzak erabaki du aho batez Muñoz Solaren margo lana 550,00 euroren truke erostea eta udaletxean jartzea.

8.- BARRA ERAUNTSIAREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO LANEN ADJUDIKAZIOA

Irigaray jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Estatuak % 50eko dirulaguntza eman duela Aetzubi garbitzeko, Zaldua eta Soroluzea zubiak eta Bidausiko bidea konpontzeko, Ekilaneke baloratutako memoriaren arabera. Obren zenbatekoa eta denboraren presa kontuan hartuta, hil honen 21a baino lehen esleitu behar baitira, hiru aurrekontu eskatzea eta obra alkatetzaren ebazpen bidez esleitzea proposatu du, eskaintzarik onena aurkezten duenari.

Aho batez erabaki da hiru aurrekontu eskatzea eta obra eskaintzarik onenari adjudikatzea alkate ebazpen bidez.

9.- MARIA ESTHER DUFUR OHARRIZEK LURZATIA SALTZEKO EGIN DUEN ESKAERARI DAGOKION ERABAKIA

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta Maria Esther Dufur Oharriz andreak aurkeztutako eskabidearen berri eman du. Eskaeran, metro karratu batzuk saltzeko eskatu zuen, zenbatekoa zehaztu gabe, bere etxearen atzealdean; izan ere, aurkeztutako agirien arabera, bere lurzatiak alde horretatik herri-lurrarekin egiten du muga. Iazko urriaren lauko bilkuran erabaki zen bezala, aipatutako metroak, katastroan, Anastasia Reca Garate andrearen oinordekoen izenean agertzen dira, ez Udalaren izenean; beraz, gaur egun Udalak ezin du ezer egin, ezin baitu katastroaren arabera berea ez den ondasunik izan. Bilkura berean, lurzatiaren kontzentrazioak finka horri nola eragin zion ikertzea erabaki zen, eta Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak emandako txostena jaso zen. Txosten horren arabera, finka kontzentrazio-prozesutik kanpo geratu zen, eta, beraz, egoera berdina da 1993an katastroa ezarri zenetik. Horren arabera, ez dago adostasunik metro horien jabetzaz, Anastasia Reca Garateren oinordekoen eta Udalaren artean.

Okerra bada, katastroa zuzendu beharko da, eta hori Udalak egoki irizten dionean egingo da; izan ere, gaur egun, beste kasu batzuk zuzentzeko lanean ari dira, bere ustez lehentasun handiagoa baitute. Azkenik, gaineratu du ezen, egoera hori erregularizatzen denean, eskatutako metroak Udalaren izenean jarriko balira, lurzorua landa-izaera dela eta, metro horiek Aurizko herri-lurretan sartuko lirakeela, eta hori ezinezkoa dela Nafarroako Gobernuaren baimenik gabe besterentzea, herritarren interes orokorrak baino eragiten ez duen desfektazio-prozesu batean.

Hortaz, Udalbatzak erabaki du aho batez eskatzaileari honakoa jakinaraztea:

-Lur hori ezin dela saldu eta gaur egun ez dagoela Udalaren izenean katastroan.

-Lursailaren titulartasunaren desadostasuna ebatzen den unean, Udala titularra balitz, landa-lurzorua landa-izaera dela eta, herri-lurzorutzat hartuko litzateke, eta, indarrean dagoen legeriaren arabera, hura zaintzeko, metroak besterentzea eragozten du, interes orokorrekoak ez direlako, eta, beraz, ezin izango litzateke saldu.

10.- NEKAZARITZA ETA BASOGINTZAKO I.I.REKIN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA PRAKTIKAK EGITEKO

Alkateak jakinarazi du, alde batetik, aguazil plaza, ezagutzen dugun bezala, egungo aguazilak erretiroa hartu eta epe ertainera Udalak duen egoera ekonomikoa dela eta, ziurrenik desagertu egingo dela, plaza amortizatuz, eta beste era batera berregituratuko dela, eta, bestetik, nekazaritza eta basogintzako ikasleen eskaera dagoela eskualdean praktikak egiteko. Bere ustez, beste aukera eta formula batzuekin probatu behar da, aguazilaren lanak osatzeko. Horregatik, institutu horrekin hitzarmen bat sinatzea proposatzen du, prestakuntza-praktiketako ikasleak etor daitezten.

Azanza zinegotzi andreak hartu du hitza, eta galdetu du zer kostu izango lukeen Udalarentzat, zer motatako lanak egingo liratekeen eta zer garaitan, eta, azkenik, ea lan horiek praktiketako ikasleek bakarrik egingo dituzten.

Irigaray alkateak erantzun du udalak ez lukeela ezer ordaindu beharko eta basogintzako gaitara bideratuta egongo liratekeela. Horrela, aurten bunkerren ibilbideen mantentze-lanak, inausketak, itxituren erreposoa, mendi-markaketa, bideen mantentze-lanak eta abar egitea pentsatuta dago. Lanak martxotik ekainera egingo lirateke, horietako batzuk agoazilarekin, beste batzuk mendizainekin eta beste batzuk haiek bakarrik egingo lituzkete.

Udalbatzak erabaki du aho batez Nekazaritza eta Basogintzako I.I. eta Udalaren arteko hitzarmena sinatzea onartzea.

11.- EDUARDO ARROSAGARAY AUZQUIK IPETEAN LURZATIA ALOKATZEKO EGIN DUEN ESKAERAREKIN ZERIKUSIA DUEN ERABAKIA HARTZEA

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta Arrosagaray jaunak Ipetea poligonoan lursail bat alokatzeko (hiru urterako, erosteko aukerarekin) aurkeztu duen eskaeraren berri eman du, egurra uzteko. Izan ere, gaur egun egiten duen lanarekin batera, egurra prestatzeko eta gune zoologiko bat instalatzeko bideragarritasuna frogatu nahi du. Bi jarduerak, hasiera batean, ez dute azpiegitura finkorik behar, instalazio desmuntagarriak baizik.

Udalkideen arteko eztabaidaren ondoren honako erabaki da aho batez:

- Gaia mahai gainean uztea eta Arrosagaray jaunari eskatzea argitu dezala zer den gune zoologikoa, udal-arkitektoari horren gaineko kontsulta egitea, eta, informazioa jasota, hurrengo saioan berriro aztertzea.

12.- CARLOS LEACHE ARRESERI HERRI-LURRAK ALOKATZEARI BURUZKO ERABAKIA

Alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du Leache jaunak Juandeaburre zinegotziari eta berari adierazi diela ez dagoela ados igorri zaion ordainagiriarekin, argudiatzen baitu Berroaundiako hitzarmena, 1,9 hektareakoa, indarrean dagoela, eta, beraz, indarrean dagoen bitartean, ez zaiola kontzeptu horrengatik kobratu behar.

Artxiboa begiratuta arrazoi duela ikusi da eta, hortaz, errezibo berria igorriko zaio Berroaundian adjudikatuak dituen 1,9 hektarea kenduta.

Hortaz gain adierazi die ez dagoela ados “gurpilaren” erabakiaren ondorioz dagozkion 3,5 hektareak ordaindu behar izatearekin, aurten Iñaki Cilvetiri uztea egokitu baitzaio. Gaineratu du, zesio horri dagokionez, Cilvetik idatzia aurkeztu duela, baina aurkeztu duenetik denbora gutxi pasatu denez, ezin izan duela gai zerrendan sartu eta hurrengo bilkuran sartuko duela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Carlos Leacheri lan egindako 3,5 hektareengatik erreziboa igortzea, nahiz eta Iñaki Cilvetiri adjudikatu, bera izan baita horiek landu dituen.

13.- DUFUR DE YNCHAUSTI ANAIEN ESKAERAREKIN ZERIKUSIA DUEN ERABAKIA

Alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Aritza eta Imanol Dufur de Ynchaustik idazki bat aurkeztu dutela. Idazki horretan, esleituta dituzten Berroaundiako 16,6 hektareei dagokienez, 2014ko urriaren 7ko hitzarmenari lotuta daudela esan dute, eta hitzarmen hori ez dela oraindik amaitu. Halaber, etorkizuneko jarduketa berriz aztertzeke eskatu dute, eta, aipatutako larreen berezitasuna dela eta, hitzarmen berri batean lan egiteko eskatu dute, aipatutako larreak oraindik finkatuta ez daudelako. Argudiatu dute SIGPACen adibidez onargarritasun koefiziente txikiagoa dutela, %85 hain zuzen ere.

Irigaray alkate jaunak proposatu du hitzarmena betetzea eta arlo horretako teknikariekin aztertzea larreen finkatze-maila, eta hitzarmen berri bat onartzea, beharrezkotzat jotzen bada.

Udalbatzak erabaki du aho batez alkatearen proposamena onartzea.

Gaztelu zinegotziak galdetu du urteko hektareako KPI aplikatzen den eta ez aplikatzea eskatu du.

Alkateak erantzun du ados dagoela Gazteluk eman dituen argudioekin baina gaia hurrengo bilkurarako uztea proposatu du eta guztien adostasunez horrela egitea erabaki da.

14.- AURREKONTUKO ALDAKETAREN ONESPENA

Alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du ikasketak egitera Iruñera joan behar duten Erroibarko, Artzibarko Hiriberriko, Auritzeko eta Garraldako ikasleen hainbat gurasoak, harremanetan jarri zirela toki erakundeekin, konponbidea bilatzeko bitartekari gisa, Hezkuntza Departamentuak garraioaren arazoari konponbiderik ematen ez zielako. Azkenik, legezketasun-gaiak direla-eta, Erroibarko udalak (dirua aurreratzen du) eta Aurizko Udalak (kontrataziorako laguntza ematen du) kudeatuko dute kontratazioa, eta gastuak gurasoek eta Proiektu Estrategikoen Departamentuak ordainduko dituzte.

Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta garestia iruditzen zaiola dio. Idazkariak erantzun du merkatuko prezioak direla, eta alkateak hori berretsi du, izan ere legebiltzarreko kideek ez zuten arazorik jarri prezioarengatik.

Idazkariak gaineratu du neurri iragankorra dela eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin sinatuko den hitzarmenaren zain daudela.

Eztabaidatu ondoren udalbatzak erabaki du aho batez aurrekontuko aldaketa hasiera batean onartzea.

Gai zerrendatik kanpo, gai hau sartzea erabaki da aho batez:

1.- Azaroak 25: Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. Aurreko urteetan bezala, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta (azaroak 25), Nafarroako zenbait Toki Erakundek, modu kolektiboan, adierazpen bateratu bat egin dute, eta EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK kanpaina honetan parte hartu nahi duten Nafarroako gainerako udalerrien esku jarri dute.

Udalbatzak, ados egonik, honakoa onetsi du aho batez:

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO UDALAK kanpainarekin bat egitea.

15.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA

Ekintza bandalikoak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Gestión Ambiental Navarra enpresaren jakinarazpen bat jaso zela, La Cadena atsedenekuko zerbitzuen mantentze-lanak egiten dituen enpresarena, hain zuzen. Jakinarazpenaren arabera, nolabaiteko garrantzia duten egintzak izan ziren, hala nola komunen haustura eta hustubideetan harriak eta makilak sartzea, eta, konponketaren zenbatekoa kontuan hartuta, delitu izatera iritsi zen. Bestalde, duela gutxi Urdandegieta eta Otsamieta mendira ibilgailuak modu kontrolatuan sartzeko jarritako seinaleak mendian botata agertu dira. Izan ere, haserre agertu dira ibilgailuak mendira sartzeko kontrola oztopatzen dutelako, udalerriaren irudi txarra ematen dutelako eta beharrezkoak ez diren gastuak sortzen dituztelako.

Juandeaburre zinegotziak proposatu du ohar bat igortzea etxeetara. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da eta Juandeaburre zinegotziak proposatutakoa onartu da.

Ubideko ura

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du abuztuaren 16an erabaki zuela San Nikolas kaleko ubideetako ura etetea, lehorrea zela eta, eta Arrañosinerreka errekek ahalik eta ur-emari handiena izan zezan. Kontuan hartuta herritar batzuek emari hori erabiltzen dutela baratzeak ureztatzeko, eta klima-aldaketarekin agorraldiak eta lehorreak ohikoagoak eta luzeagoak izango direla, formula bat proposatu beharko da erabiltzaileetako inor ez dadin diskriminatu emaria murrizten denean. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Aretxekosaron eta Saroberrin katastroa aldatzea

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du dagoeneko amaitu dela Aretxekosaroko 5. poligonoko 160. lurzatiaren katastro-zuzenketaren prozesua, Rafael Martin egungo jabearen eta Maria Nieves Urdiruz Villanueva hildakoaren borondate ona jasota utzi nahi izan baitute, eta izapide hori erraztu dute une oro. Bestalde, jakinarazi du, Herri Lanetako Departamentuak eskatuta,

errepideko katastroa eta erregistro-oharra aldatu direla, Saroberriko bidea alde batera utzita. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Abuztuko eta iraileko feriak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du aurten abuztuko feriaren kokapena atzeko aldera aldatu zela, eta Orreaga kalea hartu zuela; izan ere, Foruzaingoak hala aholkatu zuen, Frantziako Landetako suteek eta bizikleta-lehiaketa bat igarotzeak trafikoan eragin zitzaketen aldaketengatik. Gaineratu du partehartzaileak gustura agertu direla kokapen-aldaketekin. Iraileko feriarri dagokionez, nabarmentzekoa da Ernest Hemingway idazlearen egonaldiari buruzko argitalpenak izan duen harrera ona. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Elizako ezkilen katalogazioa

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Miguel Bañales Leoz jauna Nafarroako ezquila guztien katalogo bat egiten ari dela, eta herri honetako San Nikolas parrokiako 6ak sailkatu dituela. Halaber, eskerrak eman nahi ditu elementu horiei balioa emango dielako eta lapurretak saihestuko dituelako, erabat identifikatuta baitaude. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Herriko apaindura hobetzea

Irigaray alkateak jakinarazi du Jesus Pedroarena Etulain aguazilak eta Mikel Etxenike Erneta peoiak plazako iturriaren inguruko eta Sorginaritzagako Gurutze Zuriaren edo Roldanen inguruko mahaiak eta bankuak hobetzeko lanak egin dituztela. Gainera, jasota utzi nahi du Miguel Tellechea Lus jaunak borondate oneko keinua egin duela, iturriko ingurunea hobetzeko behar den egur guztia eman baitu, eta eskerrak eman nahi dizkio. Eskerrak emateko gutuna bidaliko zaio, Juandeaburre zinegotziak proposatuta. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Egurra saltzea

Irigaray alkateak jakinarazi du aurten Bidausin markatutako egur-lotea Barbiur enpresari adjudikatu zaiola eta prezioa 36.680 € gehi BEZa dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Energia eraginkortasuna hobetzeko diru-laguntza

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du IDAEk 87.110,73 € eman dituela, hau da, argiteria aldatzeko aurrekontu osoa. Horri dagokionez, esan du laster bilera bat egingo dela David Gordejuela ingeniariarekin, ekintza egutegian sartzeko eta iaz eta gaur egun jardun den eremuetarako laguntzen irismena aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Belaunaldi anitzeko parkearen proiektua dirulaguntzen deialdira aurkeztea

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du proiektua Cajanavarra Fundazioak eta La Caixak sustatutako dirulaguntza deialdira aurkeztu dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Gazteriaren prozesu parte-hartzailearen aurkezpena

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du urriaren 19an aurkeztu zitzaizkiela herritarrei egindako lanaren emaitzak eta haien kezka. Eta gaineratu du proiektua Nafarroako Gazteriaren Sarien XXV. Ediziora aurkeztu dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nafarroako Arartekoak egindako informazio eskaera

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du iritsi dela Arartekoaren jakinarazpen ofiziala, Auritzeko 2022ko plantilla organikoaren hizkuntza-eskakizunei buruz Joseba Otano Villanuevak jarritako kexari buruzkoa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Industria Kontseilariarekin eta Turismo Zuzendari Nagusiarekin izandako bilera

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du joan den azaroaren 5ean Pirinioetako hautetsiek bilera bat egin zutela Mikel Irujo Amezaga jaunarekin eta Maitena Ezkutari Artieda andrearekin. Bilera horretan, UGET-Nafarroako Pirinioko egutegiari eta horri buruzko hainbat ideiri buruz hitz egin zen. Era berean, Donejakue bideetarako Next-Generation funtsei buruzko informazioa jaso zen. Bertan, Erroibarko ordezkariak eta berak Erroibarko, Aurizko,

Orreagako eta Luzaideko Udalek prestatutako proiektua defendatu zuten. Proiektu horrek Auritzen Loigorri, Loperena eta Agio etxeetako atzeko aldean eraginen du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Pirinioko Mahaia

Irigaray alkateak jakinarazi du Pirinioko Mahaiak zuzenketak aurkeztu dizkiela lurralde osoa hartzen duten Nafarroako aurrekontu orokorre, despulazioa geldiarazteko

Nafarroako aurrekontuen emendakinak

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Udalak aurrekontuei zuzenketak egiteko proposamenak aurkeztu zizkiela Legebiltzarreko talde politiko guztiei, hau da, maisu-maistren etxeko teilatua eta natura-ondarea ezagutzeko eskola-proiektua finantzatzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ordenantza fiskala

Irigaray alkateak jakinarazi du Guardia Zibilaren helarazpena jaso zela hiriguneko trafiko-salaketei buruz, eta, udal-mugartean egiten diren arau-haustea eta beste batzuk kobratu ahal izateko, hurrengo bilkuran izapidetuko dela horiek kontuan hartuko dituen zerga-ordenantza bat onartzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

16.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.